

EUSKARA. Elhuyar, MCC, Irizar, MU, EHU eta Deustuko Unibertsitatea aritu dira lanean

Enpresa kudeaketarako hiztegia argitaratu du Ezagutzaren Klusterrak

Enpresa munduan euskara txertatzeko baliabide garrantzitsutzat jo dute sustatzaileek

Eider Goenaga | DONOSTIA

Ezagutzaren Klusterrak *Enpresa Kudeaketa Aurreratua Hiztegia* aurkeztu zuen atzo, Donostian. Hiztegiak, izenburuak berak dioen bezala, enpresa alorrean, unibertsitatean edo kudeaketa alorrean erabiltzen den terminologia euskaratzen du; Elhuyarrek koordinatu du, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU), Deustuko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen (MU), Irizar enpresaren eta MCCren laguntzarekin.

Hiztegiaren sarreran bertan adierazten denez, «proiektuaren helburua enpresetan jadanik erabiltzen diren edo laster erabiltzen hasiko direla aurreikusi daitekeen kudeaketa aurreratuko kontzeptuak euskaraz argi eta zehatz azaltzea da». Ildo horretan, Ezagutzaren Klusterreko Zuzendaritza Batzordeko Javier Sotilek gaineratu zuen, «aberastasun polita» izango dutela aurrerantzean enpresa kudeaketan jarduten duten guztiek. Francisco Egea Klusterreko lehendakariak, berriz, «gai hauetan lan egiten jarraitzeko asmoa» iragarri zuen.

«Nahiago nuke horrelako aurkezpenak egunero balira»

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiak eta Eusko Jaur-larritza ere lagun izan ditu hiztegiaren proiektuak, eta azken erakundearen ordezkari gisa Miren Azkarate Kultura sailburua izan zen atzoko aurkezpen ekitaldian. Azkaratek aurkezpenean «atseginez» parte hartzen zuela esan zuen: «Nahiago nuke horrelakoak egunero balira, euskara erraztasunez erabiltzeko baliabide berriak sortzen



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Donostiako Teknologia Parkean aurkeztu zuten, atzo, *Enpresa Kudeaketa Aurreratua Hiztegia*.

MIREN AZKARATE

Jaur-larritzako Kultura sailburua

«Lanean euskara erdara bezain eroso erabiltzea da helburua, eta horretarako hizkuntza elikatu egin behar da»

direla esan nahiko luke horrek».

Ildo horretan, euskararen eguneroko erabilera «eskolatik, astialditik edo lagunartetik haratago» dihoala adierazi zuen. «Gure helburua eguneroko lanean euskara erdara bezain eroso erabiltzea da, eta horretarako ezinbestekoa da hizkuntza elikatzea», gaineratu zuen, hiz-

ITZIAR NOGUERAS

Elhuyarreko Aholkularitzako kidea

«Euskararen ezagutza datuak gero eta hobeak dira, baina horrek oraindik ez du lan munduan islarik izan»

tegia elikagai paregabea dela nabarmenduz.

Enpresa munduan euskara txertatzeko tresna badagoela eta, orain, tresna hori erabili egin behar dela esan zuen sailburuak. Ildo horretan, garrantzitsua iritzi zion Euskal Herriko hainbat enpresa eta erakundek dagoeneko abiatuta dituzten euskararen kudeaketarako pla-

nak indartzeari. «Izan ere, lan tresna honi ezingo baitzaio etekinik atera, enpresa bakoitzak bere aldetik euskara txertatzeko esfortzua egiten ez badu».

Hiztegia landu duen lan taldeko kide eta Irizar enpresako Errektoretza Batzordeko lehendakari Juan Jesus Anduagak argi eta garbi adierazi zuen, euskarak ez duela enpresetan «behar adinako presentziarik». «Eta esan dezakegu orain badugula aspalditik behar eta falta genuen tresna», adierazi zuen, hiztegiari dagokionean.

Elhuyarreko Aholkularitzako Itziar Noguerasek euskararen normalizazioan emandako urratsak nabarmendu zituen: «Ezagutza datuak gero eta hobeak dira, baina horrek oraindik ez du lan munduan islarik izan».

ALARDEA

Gaur jakinaraziko du Irungo Udalak tradizionalisten desfilea baimentzen duen

Agentziak | DONOSTIA

Alarde tradizionalari desfilatzeko baimena eman-gio dion edo ez argituko du gaur Irungo Udalak. Alardea San Martzial egunez egingo da, datorren igande-ean, eta oraingoz tradizionalistek bakarrik eskatu dute desfilatzeko baimena; hots, emakumeak soilik kantineraz ateratzen diren desfilerako baimena eskatu dute.

Tradizionalistek eskae-ran aurkeztutako dokumentazioa aurkeztuta, litekeena da erantzuna gaur ezagutaraztea. Eskatera egiteko iaz erabilitako formula bera erabili dute tradizionalistek, alegia, kalean egingo den herri antzerkiaren formula.

Hala ere, emakumeak eskopetero gisa parte hartzearen aldeko Bidasoaldeko Emakumeak taldeak helegitea aurkeztu zuen iaz EAeko Justizia Auzitegi Nagusian, antzerkia baimentzearen kontra, eta auzitegiaren erabakia ere egunotarako espero da. Beraz, Udalak baime-na emanda ere, posible da EAeko Auzitegi Nagusiaren epaiak erabaki hori baliogabetzea.

Emakumeak babestuko dituztela dio Balzak

Javier Balza Eusko Jaur-larritzako Herrizaingo sailburuak gaiaren inguruan hitz egin zuen atzo. Adierazi zuenez, Ertzaintzak herritarren parte-hartzea bermatuko du, «alardea modu ordenatuan eta erasorik gabe egin dadin». Ildo horretan, parte-hartzaile guztiak babestuko dituztela esan zuen, «baina, batez ere, ahulenen segurtasuna bermatuko dugu; emakumeena, alegia».

Bestetik, Bidasoaldeko Emakumeek atzo iragarri zuten, gaur protestaldia egingo dute Donostian, Kutzaren kontra. Izan ere, Kutzak publizitatea sartu du Alarde tradizionalako kideek Irungo jaietarako ateratako egitarauan. Hala, musika bandaren laguntzaz, Kutzaren egoitza nagusitik aterako dira 18:00etan eta manifestazioa egingo dute.

EDUKIA

207 termino daude, ingeles, frantses eta gaztelaniatik itzulita

Atzo aurkeztutako *Enpresa Kudeaketa Aurreratua Hiztegiak* 207 termino jasotzen ditu bere 88 orrietan. Hamabost lagun inguruko talde bat jardun da hiztegiaren edukia lantzen, eta horien artean egin zuten aurkeztutako 1.000 termino inguruen arteko hautaketa eta banaketa.

Horietako batzuk jadanik erabiltzen dira

enpresa munduan, beste batzuk oso-oso teknikoak dira, askok orain arte ez dute izan euskararako itzulpenik —ez eta gaztelaniazko ere— eta beste hainbat, oraindik erabiltzen ez badira ere, etorkizunean erabilera handikoak izango direla aurreikusi dute hiztegia egiten jardun dutenek.

Aurkeztutako liburuaren egiturari dagokionean, bi atal nagusitan banatzen da. Lehen atalean hainbat hitz hautatu eta horiek definitzen dira. Adibidez: «Cash-flow: Kutzako fluxu. Enpresaren kobruen eta ordainketen arteko erlazioa, enpresa liki-

dezia eta erabilgarritasuna neurtzeko erabiltzen dena». Definizioaren batera, termino horrekin zerikusia duten hainbat hitz ere jasotzen dira.

Bigarren atalean, berriz, ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazko hainbat hitzen itzulpena agertzen da, eta bilatzen diren terminoak erdal hizkuntza horietan daude, guztiak batera. Gehienak, enpresa munduan gehien erabiltzen den hizkuntza izaki, ingelesez daude. Esaterako: «Working capital / rotation funds: errotazio-fondo, errotazio-funts, laneko kapital, manio-bra-fondo, maniobra funts».